



## **steilasek helegitea jarriko die HEZIBERRI 2020ko Dekretuen zenbait punturi**

Une garrantzitsuak dira gure Hezkuntza Sistemarako. PNVec zuzentzen duen Hezkuntza Sailak PSEk hasitako murrizketa politikak egonkortu eta areagotu ditu eta EAEko hezkuntza sistema putzu ilun batean murgiltzen ari da; Heziberri 2020 proiektuaz ari gara. LOMCE goitik behera aplikatzeko erreminta izateaz gain, edozein hezkuntza sistemaren ardatz izan beharko luketen aukera berdintasuna eta ekitatea guztiz hondoratzen dituen ekimena da Heziberri2020.

**steilas** hasiera-hasieratik egon da LOMCEren aurkako ekimen guztietan, ahalik eta indar metaketa zabalena bilatuz, eta HEZIBERRI egitasmoari aurre egiteko ere, gure sindikatuak, orain arte bezala, elkarlanerako guneen bila jarraituko du hemendik aurrera.

Eskola komunitateko langileriaren gehiengoak gure hezkuntza ereduaren aldeko bozka eman du, gure etorkizunera begirako hezkuntza sistema propio eta publikoaren aldeko ideia indartuz. **steilasek** langileon ahotsa gainontzeko eragileen maila berean egotea aldarrikatzen du, ez dugu bigarren edo hirugarren mailako interlokuziorik onartuko.

Onartzear dauden Heziberri 2020ko dekretuek hezkuntza sistemaren eredu lehiakor bat proposatzen dute, enpresa txikiz osotua: ikastetxe bat, enpresa bat. Bai LOMCE bai Heziberriek Europar Batzordetik datozen joera neoliberal bortitzenekin bat egiten dute, gure ikastetxeak merkatuen esanetara utziz (Rethinking Education), eta horretarako beharrezko diren egokitzapenak eginez bai finantziaketa eremuan (sare publikoan murrizketak, proiektuen eta emaitzen araberako finantziaketa...) bai sare publikoko kudeaketa eta kontrol mekanismoetan ere (eskola komunitatearen botereuztea, zuzendaritzen eredu gerentziala...). Heziberri 2020 azken hamarkadetan kohesio sozialak, ekitateak eta aukera berdintasuna jasan duten kolperik gogorrena izan da.

Egia da Heziberri 2020k LOMCEren babes juridikoa duela gure legedian egin beharreko moldaketak asko egiteko, baina Cristina Uriartek zuzentzen duen taldeak, haratago joatea erabaki du, zenbait kasutan, legezko mugak gaindituz. Hori dela eta, **steilas** ek hiru gaien inguruko helegitea jarriko die onartuko diren dekretuei:

1.- Euskararen Normalkuntzaren legeak eta Euskal Eskola Publikoaren legeak hiru eredu linguistiko definitzen dituzte: A, B, eta D. Ez da inondik inora atzerriko hizkuntzarik aipatzen, euskara eta gaztelera soilik, eta Heziberriko dekretuen 10. eta 11. artikuluek ikastetxe bakoitzari atzerriko hizkuntza

sartzeko aukera ematen diote. **steilas** ez dago atzerriko hizkuntzak eskolan sartzearen aurka, ez eta egun ditugun ereduak defendatzearen alde ere, inondik inora. Baina dekretuetan jasotzen denak sareen arteko desoreka nabarmena indartu egiten du, administrazioaren utzikeria medio, eskola publikoek ezin izango baitute itundutako sarearen baldintza berdinetan hautua egin.

2.- Ikastetxearen ingurunearen baldintza soziolinguistikoak adieraziko du ikaslearen irteera profila, ikastetxe bakoitzak lorpen adierazle ezberdinak izango baititu. Orain arte, administrazioaren ardura zen ekitatea eta aukera berdintasuna bermatzea, eta ikasle guztiek, legez behintzat, irteera profil komuna zuten. Dekretuak onartutakoan gaztelera nagusi den inguruetan lorpen adierazle baxuagoak ontzat emango dira, ikaslearen euskalduntzea bermatu gabe, ereduak beraiek ezartzen zituzten aldeak areagotuz, eta A eta B ereduaren legez kanpoko joerei berme legala emanez.

3.- Familiek ikastetxearen hezkuntza printzipioak derrigorrez onartu beharko dituzte. Orain arteko legediak "errespetatu" hitza jasotzen zuen. Kontuan izan behar dugu hezkuntza sistema osatzen duten ikastetxeen %30ek gutxi gora behera erlijio katolikoarekin lotutako printzipioak jasotzen dituztela. Euskal Eskola Publikoaren legeak, bere 3. artikuluan, era guztietako aniztasuna errespetatu beharraz eta oztupoak, edonolakoak izanda ere, gainditu beharra aipatzen du.

Gaurtik aurrera **steilas** ek Heziberri2020ren aurkako ekimen eta mobilizazio ezberdinei ekingo die, eta bide horretan ahalik eta eragile eta elkarlanerako gune zabalenak topatzen saiatuko da.

Bilbon, 2015eko martxoaren 24an